

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus— www.donostia.ehbildu.eus

KONTROL MOZIOA

Langileen Batzordeari erantzun beharrari buruzkoa

Reyes Carrere Zabalak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko ekainaren 13an Zerbitzu Orokorretako Batzordean jorratutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Bi urte baino gehiago joan dira Mugikortasun Saileko langileak beren lan-baldintzak hobetzea eskatzen hasi zirenetik: besteak beste, kontratazio berriak, prestakuntza, baliabide materialak eta lan postuen balorazioa. Orduz geroztik egindako mobilizazio eta adierazpenetan, beren egoeraz gain, salatu dute Udal Gobernuak akordioak lortzeko erakutsi duen borondate eskasa. Eta jarrera horren adierazle dela langileek planteatzen dituzten konponbide-proposamenen aurrean erantzunik ez jasotzea.

Departamentu honetako agenteen arabera, hainbat espazio formaletan planteatu diete pairatzen duten egoera txarra Udal Gobernuko hainbat ordezkari: Mugikortasuneko Zuzendaritzari, Langileen Zuzendaritzari, zuzenean alkateari, baita negoziazio mahaian ere, Langile Batzordearen bitartez. Horietan guztietan, egoera azalduz eta proposamenak aurkeztuz; betiere, langile faltagatik jasaten dituzten murrizketei emango dieten epe laburreko, ertaineko eta luzeko konponbideak bilatzeko. Azkena apirilaren 8an izan zen, Udal Gobernuak Langile Batzordearekin egindako ohiko bileran. Bertan, Mugikortasun Saileko langile batek, berriro ere, euren aldarrikapenak azaldu zituen eta soluzio bide sorta bat proposatu zuen. Bukaeran, Udal Gobernuko ordezkari batek azaldu zuen kontratazio berriei buruzko arazoa urteko aurrekontuen negoziazioari zegokiola; baina kontziliazioei, bajei eta lanaldi-murrizketei buruzkoak aztertzeko konpromisoa hartu zuten.

Aurreko hilabeteetan pilatutako etsipenak eta mesfidantzak gainditzeko ahalegina eginez, gobernuaren jarrera horrek itxaropena berpiztu zuen udal langile kolektibo horretan. Hala eta guztiz ere, bi hilabete joan dira eta erantzunik gabe jarraitzen dute udal atal honetako langileek.

Batzordean, zinegotzi delegatuak ez zuen argitu zergatik, bi hilabete pasatu ondoren, oraindik ez zaien erantzun Mugikortasun Saileko langileen ordezkariak egindako proposamenei. Era berean, ez zituen baloratu, ezta argitu ere, zein neurritan diren

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus— www.donostia.ehbildu.eus

gobernuaren irizpideen aurkakoak edo, agian, zeintzuk izan daitezkeen gobernuaren jarrerekin komunean dauden puntuak.

Kezkagarria iruditzen zaigu ez erantzuteko jarrera hori. Izan ere, langile horiekiko lan gatazka areagotzen ari da (jakina da, gainera, ez dela Udal Gobernuak udal langileekin irekita duen fronte bakarra). Aitzitik, uste dugu behar-beharrezkoa dela Udal Gobernuak negoziazio-zubiak eraikitzea. Udal langile hauek premiazko erantzuna merezi eta behar dute.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, gehienez ere hamabost eguneko epean, helaraz diezaiola Langileen Batzordeari Mugikortasun Unitateko langileen ordezkari sindikalak apirilaren 8ko bileran egindako proposamenen balorazioa.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, gehienez ere hamabost eguneko epean, Langileen Batzordeari proposamen bat helaraztea, mugikortasun-agenteeek adierazitako eskaera nagusiei irtenbideak proposatuz; kontziliazioaren, bajen ordezkapenaren eta lanaldi murrizketen arazoekin amaitzeko.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, gehienez ere hamabost eguneko epean, ibilbide-orri bat helaraztea Langileen Batzordeari, foro formaletan eta ez-formaletan bilerak egiteko, ahalik eta epe laburrenean Udal Gobernuaren eta Mugikortasun Saileko ordezkari sindikalen artean akordioak lortu ahal izateko.

Donostian, 2022ko ekainaren 16an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko zinegotzia